

Barne ahotsa

Joxean Agirre

Pena pixka bat ematen dit barne ahotsik gabe bizi den jendeak, goizean esnatu eta irratia piztu behar izaten dutenek, bakarrik gelditu orduko aspertzen direnek. Ez dut esango nire barneko ahotsa harrigarria denik, baina jostalaria da, adarra jotzen daki eta aldarte oneko dagoenean badaki esaldi borobilak egiten ere. Malekoiari itzuli bat ematera noa eta etorriko dagoela ikusten badut, orri erdi bat eraman ohi dut patrikan eta apuntatzen ditut esaldi horiek badaezpada.

Askotan gertatu ohi zait autoan noala esatarian ahotsarekin erabat aspertu eta neure barruko ahotsa dibertigarriagoa dela iritzita, irratia itzaltzea ere. Ez dut esan nahi horrekin nirea beti distiratsua denik. Abailduta ere sumatu izan dut eta

eguneko egitekoetan murgiltzen naize-nean, isildu egiten da noski eta egiteko-rik gabe ikusten zaituenean bakarrik itzuliko da zure baitara.

Ez du zerikusirik pentsamendu arra-zoituarekin, ezta ere kontzientziaren ahotsarekin. Bigarren horri ez diot arreta handirik jartzen, beti ari baita marmarre-an, beti baitabil gaizki eginen damu eta egin gabekoen korromioekin bueltaka.

Ez du zerikusirik gizarteak baztertu di-tuen etxegabe, eskale eta *clochard*-en ba-karrizketekin ere. Horiek ere beren gisara mintzo ohi dira baina ozenki, inguruko-ak molestatzeko moduan eta era guztiz bindikatiboan; maitasun zorigaiztoko baten, zoriaren edo gizartearen beraren kontra aritzen dira eta arrazoiarekin as-kotan.

Barne ahotsa arinagoa, samurragoa, baina ohartuta nago ez ote zaidan hasi tarteka gai potoloekin nahasten, musu-koarekin ibiltzen hasi nintzenetik dis-krezioa alde batera utzi eta ezpainak mugitzen hasi bainaiz eta, neuk entzu-ten diodalako dakit, “Donostiako me-troa”, “Abiadura handiko”, “Urkullu jau-na” eta gisako esaldien printzak ahoskatzen baititu. Eta pena ematen dit eta kezka pixka bat ere bai. Beldur naiz bolada madarikatu hau pasa eta musu-korik gabe ibiltzen hasten garenenean ingurukoak ez ote diren kezkatzen hasi-ko eta ez ote duten pentsatuko etxega-be, eskale eta *clochard*-ek bezala, maita-sun zorigaitzeko baten, zoriaren edo gizartearen beraren kontra ez ote naizen gaizki esaka hasi. •

Teknopertsonak

Nekane
Zinkunegi
Barandiaran

Pasa den astean, Javier Echeve-rria filosofoaren hitzaldi bat entzuteko aukera izan nuen. Landa eremuan edo hirigune-etan bizitzeaz gain, gaur egun, hiruga-rren ingurunean ere bizi garela azaldu zuen, sarean, Interneten, sare soziale-tan, alegia. Eta azaldu zigun hiruga-rren ingurune horretan ari garenean, datuak sortzen ari garela etengabe, gure inguruko datuak. Norbaitek zer-baitetarako baliatzen duen informazio preziatua ematen ari gara, beraz.

Egia esan, aurrez ere banekien tek-nologiak, gailu berriek edo sare sozia-

lek abantailak eskaintzen dituztela, baina arriskuak ere sortzen dituztela. Baina zer pentsatua eman zidan. Bere-ziki, aspaldian asko hitz egiten dugu-lako kontrol sozialaz eta askatasuna-ren murrizketaz.

Gobernuez eta estatuez gaindi, hiru-garren ingurunean enpresa multina-zional handiek agintzen dute, eta in-gurune horretatik gainerako eremuetan ere sarbidea dute. Akaso, horregatik, pandemiak hainbat ekono-mia sektore gogor kolpatzen dituen bitartean, etenik gabe irabaziak lor-tzen dituzte guk espazio publiko gisa

irudikatzen ditugun sare sozialen ja-beek.

Izan ere, sakelako telefonoak dauz-kagunetik, pultsera telematikoak dauzkagu, teknopertsona bihurtu ga-ra. Gailu berri bat edo software baten eguneratzea eskuratu nahi dugun al-di-ro, baldintzak onartzeko aukera ire-kitzen zaigun aldiro, ez dugu kontratu sozial bat adosten, inposatu egiten zaigu. Biltegi digitaltzat dugun ho-deia, beraz, teknopertsonen fabrika da, eta gu gara ekoizleak fabrika ho-rretan. Gainera, doan egiten dugu ekoizpen lan hori. •